



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN
UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA
DE
ARRANKUDIAGA
(BIZKAIA)

**2019KO EKAINAREN 26AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK EGINDAKO
EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**BERTARATUTAKO
ZINEGOTZIAK**

=====

ALKATEA

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

ALKATE ORDEAK

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)
Bigarren alkate ordea, Mainer Birtxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2019ko Ekainaren 26ean, 16:05ak izanik, hasiera ematen zaio ez-ohiko osoko bilkurari.

**1. EKAINAREN 15EAN EGINDAKO ERAKETA OSOKO BILKURAREN
AKTA IRAKURTZEA ETA HORRELA BADAGOKIO, ONARTZEA.**

Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión constitutiva de la nueva corporación celebrada el 15 de junio de 2019.

Udal batzak aho batez onartzen du ekainaren 15ean egindako eraketa bilkuraren akta.

La corporación aprueba por unanimidad el acta de la sesión constitutiva del 15 de junio de 2019.

2. TOKIKO ERAKUNDEEN ANTOLAKETA, JARDUERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA ARAUTZEN DUEN 2568/1986 ERREGE DEKRETUAREN 38 ARTIKULUAK JASOTZEN DITUEN ERABAKIAK HARTZEA, HORRELA BADAGOKIO.

Toma de Decisión, si corresponde, sobre los aspectos regulados en el artículo 38 del Real Decreto 2568/1986 de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Entidades Locales.

- **Osoko Bilkuraren maiztasuna:** Tokiko Araubideen Oinarrizko Legearen 46 artikulua ezartzen duen bezala, ohiko osoko bilkurak, gutxienez hiru hilabetetik behin egingo dira.

- **Batzordeen edo lantaldeen eraketa eta osaketa:** Alkatearen proposamena, soilik batzorde bakar bat eratzea da, hau da, araudiak ezartzen duen kontu batzorde berezia eta batzorde izaera ez duten lantalde irekiak. Kontu batzordea 3 kidez osatuko da, EH Bildu udal taldeari 2 kide dagozkie eta EAJ/PNV udal taldeari beste bat.
Lantaldetan, herritarrekin batera herriarentzat interesdun gaiak landuko dira. Hauek dira lantaldeak:
Antolaketa; Hirigintza eta Ingurumena; eta Herritarren eskubideak, kultura eta kirola.
Udal batzak aho batez onartzen du alkatearen proposamena.

- **Udalaz gaineko kide anitzeko organoetan ordezkaritza:** Alkateak bere proposamena aurkezten du:
 - Ugaoko oinarrizko zerbitzu sozialak: Ordezkaria, Itziar Duoandikoetxea.
 - Gorbeialdea Landa garapena: Ordezkaria, Txutxi Ariznabarreta.
 - Udaltalde 21: Ordezkaria, Txutxi Ariznabarreta.
 - Eskola kontseilua: Ordezkaria; Maider Biritxinaga
 - Euskalfondoa: Ordezkaria; Itziar Duoandikoetxea.
 - Eudel: Ordezkaria, Txutxi Ariznabarreta.
 - Udalbiltza: Ordezkaria, Txutxi Ariznabarreta.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ/PNV), esaten du bere taldeak ez duela bat egiten Udalbiltzan parte hartzearekin. Gaur egun udala Eudeleko kidea izanik ez du uste beharrezkoa denik Udalbiltzan parte hartzea.

Alkate jaunak erantzuten dio erakunde biak osagarriak direla, biak udalak ordezkatzen dituzten erakundeak izanik, funtzio ezberdinak dutelako.

Josu Beaskoetxeak galdetzen du zeintzuk diren Udalbiltzari zein Eudeli egiten zaizkien diru ekarpenak.

Idazkariak erantzuten dio; Eudeli urtean 350,51 €ko ekarpena eta Udalbiltzaren kasuan, 1.000 € urtean.

Bozketa bi zatitan egiten da, lehenengo eta behin bozkatzen da, udalak Udalbiltzan parte hartu behar duen ala ez.

Aldeko botoak: 4 (EH Bildu).

Abstentzioak: 3 (EAJ/PNV).

Bigarrenez, aipatutako udalaz gaindiko organoetan, alkateak egindako udal ordezkariak bozkatzen da.

Aldeko botoak: 4 (EH Bildu).

Abstentzioak: 3 (EAJ/PNV).

- **Alkate-ordeen izendapenen kontu ematea**: Idazkari jaunak azaltzen du, ekainaren 19an sinatutako 51-2019 alkate dekretuaren bitartez, Itziar Duoandikoetxea lehenengo alkate-ordea eta Maider Biritxinaga, bigarren alkate-ordea, izendatu dituela.

3. UDAL TALDE POLITIKOEN ERAKETA ETA OSAKETAREN KONTU EMATEA ETA HORRELA BADAGOKIO TALDEENTZAT DIRU BALIABIDEAK ONARTZEA.

Dación de cuentas de la constitución y composición de los grupos políticos municipales y aprobación, si procede, de las asignaciones económicas.

Idazkari jaunak azaltzen du Tokiko Araubideen Oinarriak ezartzen duen Legearen 73 artikulua ezartzen duena jarraituz, bi udal talde politiko eratu direla. Alde batetik Arrankudiaga eta Zolloko EH Bildu udal talde politikoa, bere kideak, Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta, Itziar Duoandikoetxea, Maider Biritxinaga eta Mikel Abrisketa izanik eta Arrankudiaga-Zolloko EAJ-PNVko udal talde politikoa, bere baitan Josu Beaskoetxea, Ane Miren Esparza eta Izaskun Barrenetxea direlarik.

Horren harira, alkate jaunak talde politikoei bideratu beharreko baliabide ekonomikoen proposamena azaltzen du. Era horretan bere proposamena hurrengo hau da:

Alde finko bat: 80 € hilero taldekiko.

Alde aldakor bat: 30 € zinegotziko.

Era horretan, hilero EH Bildu udal talde politikoak 200 € jasoko ditu eta EAJ/PNV taldeak 170 €.

Alkateak egindako proposamena bozkatzen da eta udal batzak aho batez onartzen du.

4. FINANTZA ERAKUNDETAN SINADURA MANKOMUNATU BAIMENDUAK.

Firmas mancomunadas autorizadas en entidades financieras.

Idazkari jaunak azaltzen du, orain arte, alkate eta kontu hartzailearekin batera, diruzain funtzioak betetzen zinegotzi batek zuela sinadura. Baina, Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa ezartzen duen Errege Dekretuak ez du aukera hori jasotzen. Horren ondorioz, aipatutako araudiaren seigarren xedapen iragankorrak esaten duena jarraituz, aurrerantzean, kontu hartzaileak hartuko du

diruzainaren sinadura, beraz, soilik bi sinadura mankomunatu egongo dira, alkatearena eta kontu-hartzailearena.

Halaber, zinegotzi guztiei agintzen diren ordainketen inguruan informazioa bermatzeko, hileroko egiten diren ordainketen informazioarekin dokumentu bat bidaliko zaie.

5. ONARTUTAKO ALKATE DEKRETUEN KONTU EMATEA.

Dacion de cuentas de los decretos de alcaldia firmados hasta la fecha.

- 33-2019. Ejercicio de acción judicial contra la Diputación Foral de Bizkaia y contratación de la defensa jurídica en dicho proceso.
- 34-2019. Contrato Peon Javi Barea.
- 35-2019. Concesion ayuda a Domicilio Vicenta Parra.
- 36-2019. Enajenación de mini bus municipal.
- 37-2019. Aprobación junta de concertacion U.E.3 Uribarri (U.E.3.U.).
- 38-2019. Licencia de paso de camino municipal Etorri Kooperativa.
- 39-2019. Inicio proceso de creación bolsa de trabajo udalekus y ludoteca.
- 40-2019. Baja de oficio Padron Lavro George.
- 41-2019. Inicio proceso incorporacion remanentes.
- 42-2019. Aprobación incorporacion de remanentes.
- 43-2019. Reclamacion cuotas pendientes de la urbanizacion del sector 3 Elexalde.
- 44-2019. Licencia de paso por camino municipal Guillermo Iturriondobeitia.
- 45-2019. Licencia paso por camino municipal Segio Alvarez.
- 46-2019. Licencia paso por camino municipal Andoni Etxeberria.
- 47-2019. Tarjeta estacionamiento discapacitados Esperanza Urquijo.
- 48-2019. Tarjeta estacionamiento discapacitados Vicenta Parra.
- 49-2019. Delegacion matrimonio civil.
- 50-2019. Delegacion matrimonio civil.
- 51-2019. Nombramiento Teniente Alcaldes.

6. INTERESDUN GAIEN KONTU EMATEA.

Dacion de cuenta de asuntos de interes.

Idazkari jaunak hurrengo gaiak mahaigaineratzen ditu:

Alde batetik, aurrerantzean zinegotzietan egin beharreko notifikazioak posta elektronikoz bidez egingo direla. Norbaitek arazorik edukiko balu beste modu bat ezarriko litzateke. Zinegotzi guztiek onartzen dute deialdien notifikazioak posta bidez jasotzea.

Era berean, alkate dekretuak osoko bilkuraren deialdiarekin batera bidaliko zaizkie zinegotzietan, era horretan ez dira inprimatu behar izango. Edozein kasuan, dekretu batzuk espediente baten barruan ematen direla kontuan hartuta, hori deialdian zehaztuko da, era horretan edozein zinegotzi eskatu ahal izango du idazkaritzan espediente osoa.

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko ekainaren 26an, 17:10etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 17:10 horas del 26 de junio de 2019. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

ALKATEA

IDAZKARIA